



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

16/01/19

Familiares de personas ingresadas en residencias de Bizkaia valoran con un notable alto el servicio recibido

Las familias de personas ingresadas en residencias de Bizkaia muestran un alto grado de satisfacción por el servicio y la atención recibidos, y los valoran una nota media de 7,87 puntos sobre 10. El dato es una de las principales conclusiones de una encuesta telefónica que ha contado con más de 2.000 participantes, y cuyos detalles han sido desvelados esta mañana ante la Comisión de Acción Social por la responsable foral de este Departamento, Isabel Sánchez Robles.

La diputada foral ha comparecido a petición propia ante los grupos junteros para informar de los resultados de la encuesta, así como de las conclusiones preliminares de un plan piloto para evaluar las condiciones en las que desarrollan su trabajo las personas cuidadoras en la comarca de Durangaldea. Sánchez Robles ha respondido también a un requerimiento de EH Bildu en torno a la residencia de la Fundación Miranda de Barakaldo, y ha contestado a una pregunta de esta misma formación sobre la información que deben facilitar las residencias concertadas.

La encuesta de satisfacción entre los familiares de personas mayores ingresadas en residencias vizcaínas es el resultado de un total de 2.012 entrevistas telefónicas, en las que se han contemplado una amplia variedad de aspectos: desde la atención recibida hasta el coste, pasando por las casuística de las personas ingresadas, o el origen y frecuencia de las visitas que reciben, entre otros. La diputada foral ha puesto en valor la encuesta por su carácter exhaustivo, y ha señalado que el resultado muestra que las familias “agradecen y valoran el trabajo de los servicios sociales, nos dan un notable, y pone de manifiesto que el servicio funciona, aunque siempre haya áreas de mejora”.

En cuanto al proyecto piloto llevado a cabo en Durangaldea, Sánchez Robles ha precisado que se trata de resultados provisionales de un trabajo de investigación que sigue en marcha y que ha contado con la participación de 287 personas cuidadoras. La responsable foral ha subrayado la buena acogida y el grado de participación logrados y, entre las primeras conclusiones extraídas, ha destacado la necesidad de promover entre este colectivo, en el plano psicológico, una mejor gestión del estrés derivado de sus labores y, así como la importancia de la actividad física de cara a prevenir lesiones.

Todos los grupos junteros han valorado esta doble iniciativa del departamento de Acción Social como herramientas válidas de cara a continuar mejorando los servicios de asistencia, si bien se han mostrado a la espera de contar con información en detalle sobre los resultados de la encuesta y del proyecto piloto.

Fundación Miranda de Barakaldo

Por otro lado, el portavoz de EH Bildu Josu Unanue había solicitado la comparecencia de la Diputada Foral de Acción Social para que informe sobre el conflicto laboral en la Fundación Miranda de Barakaldo, las actuaciones de la Diputación al respecto y sus posibles repercusiones



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

en la calidad del servicio a las personas residentes, dado que una parte de ellas ocupan plazas concertadas con el ente foral. Isabel Sánchez Robles ha explicado que, de las 232 plazas disponibles en este centro, 150 son concertadas, aunque solo 102 están cubiertas. Y ha insistido en que el servicio de inspección ha actuado con profesionalidad y diligencia, tanto a iniciativa propia como en relación con las quejas detectadas, y que en ningún caso se han detectado deficiencias de consideración. También ha subrayado que la Diputación Foral no tiene en este caso ninguna competencia en el conflicto laboral, ni tampoco en cuanto a un posible funcionamiento deficiente de la Fundación titular de la residencia. Esta cuestión dependería en su caso por el Protectorado de Fundaciones del País Vasco, órgano dependiente del Gobierno de Vitoria.

Jon Sánchez (Nacionalistas Vascos) y Juan Otermin (Socialistas Vascos) han respaldado la posición de la responsable del departamento de Acción Social, mientras que Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) ha abogado por mantener la calidad del servicio en condiciones laborales aceptables, y Eduardo Andrés (Grupo Popular) se ha interesado por el cumplimiento de los requisitos asistenciales durante la huelga. Más críticos se han mostrado Jose Ángel Elgezabal (Podemos Bizkaia) y el propio autor de la iniciativa parlamentaria, Josu Unanue. El primero ha sido muy crítico con la gestión de la Fundación Miranda y ha solicitado conocer las quejas concretas presentadas por las personas residentes; el segundo ha denunciado que la notable reducción de costes en áreas como alimentación, limpieza o personal por parte de la Fundación hacen imposible que se mantenga el mismo nivel de calidad del servicio.

Información por parte de las residencias con plazas concertadas

El orden del día de la Comisión de Acción Social se ha completado con una pregunta de la apoderada de EH Bildu Arantza Urkaregi en torno a la información detallada que deben prestar las empresas que gestionan aquellas residencias que tienen plazas concertadas con la Diputación Foral de Bizkaia. La responsable del Departamento ha explicado que se trata de una nueva herramienta informática presentada en julio pasado, que ha requerido la organización de talleres de formación, y que en octubre se inició el proceso de carga de los datos requeridos por la Administración foral, si bien el plazo estará abierto hasta el presente mes de enero. Los datos recogidos estarán disponibles en los próximos meses, dado que se trata de una nueva herramienta y de un proceso complejo que implica a más de un centenar de residencias.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
19/01/16

Bizkaiko egoitzatan ingresauta dagozan pertsonen senideak oso ondo altuagaz balorau dabe jasotako zerbitzua

Bizkaiko egoitzatan ingresauta dagozan pertsonen senideek gogobetetze maila altua erakusten dabe jasotako zerbitzuagaz eta arreteagaz, eta 10etik 7,87 puntuko babez besteko noteagaz baloretan ditue. Datu hori da telefonoz egin dan inkestaren ondorio nagusietakoa. Inkestak 2.000 partaide baino gehiago izan ditu, eta horren xehetasunak Isabel Sánchez Robles Saileko arduradunak azaldu ditu gaur Gizarte Ekintzako Batzordearen aurrean.

Foru Diputatua berak eskatuta etorri da Batzarretako taldeen aurrera, inkestaren emaitzen barri emoteko, eta baita Durangaldeko eskualdean zaintzaileek euren lana egiteko dituen baldintzak ebaluetako plan pilotuaren aurretiazko ondorioak aurkezteko be. EH Bilduk, Barakaldoko Miranda Fundazioaren egoitzaren inguruan egindako agindeiari be erantzun deutso Sánchez Robleseki, eta baita talde berak egoitza kontzertauk emon behar daben informazioaren ganean egindako erantzun-eskeari be.

Bizkaiko egoitzetan ingresauta dagozan adinekoen senideen artean egindako gogobetetze inkestea, telefonoz egindako 2.012 alkarrizketaren emaitzea da. Alkarrizketa horreetan hainbat alderdi hartu dira kontuan: jasotako arretatik kosturaino, ingresauta dagozan pertsonen kasuetatik edo jasoten dituen bisiten jatorritik eta maiztasunetik igaroz, beste batzuen artean. Foru Diputatuak balioan jarri dau inkestea, bere izaera zorrotza dala eta, eta esan dauenez, emaitzak erakusten dau familiek “eskertu eta balorau egiten dabela gizarte zerbitzuen beharra, oso nota ona emoten deuskue, eta zerbitzuak funtzionetan dauela erakusten dabe, beti egongo diran arren hobetu beharreko arloak”.

Durangaldean aurrera eroandako proiektu pilotuari jagokonez, oraindino martxan jarraitzen dauen eta 287 zaintzailearen partaidetzea izan dauen ikerketa lan baten behin behineko emaitzak dirala esan dau Sánchez Robleseki. Aldundiko arduradunak, lortutako harrera ona eta partaidetza mailea azpimarratu ditu, eta lortu diran lehenengo ondorioen artean, kolektibo horren barruan, behar horreetatik sortutako estresaren kudeaketa hobea lortu beharra aitatu eta jarduera fisikoaren garrantzia azpimarratu dau, lesinoak saihesteko.

Batzarretako talde guztiek Gizarte Ekintza Sailaren ekimen bikotxa balorau dabe, arreta zerbitzuak hobetzen jarraitzeko tresna baliagarriak dirala esanez. Dana dala, inkestaren eta proiektu pilotuaren emaitzen ganeko informazio zehatza jasotzearen zain geratu dira.

Barakaldoko Miranda Fundazioa

Beste alde batetik, Josu Unanue EH Bilduko bozeroaleak Gizarte Ekintzako Foru Diputatuaren agerraldia eskatu dau, Barakaldoko Miranda fundazioaren egoitzako lan gatazkea azaltzeko eta egoitza horretan plaza kontzertaua daukien egoiliarrentzako gitxieneko zerbitzuak bermatzeko bere sailak aurrera eroango dituan neurrien barri emoteko. Isabel Sánchez Robleseki azaldu dauenez, egoitza horretan dagozan 232 plazetatik 150 kontzertautakoak dira, baina horreetatik 102 baino ez dagoz beteta. Eta ikuskapen zerbitzuak profesionaltasunez eta gaitasun handiz jardun dauela azpimarratu dau, bai bere ekimenez eta baita jaso diran kexakaz erlazioan, eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ez dala kontuan hartzeko moduko gabeziarik hauteman. Azpimarratu dau, baita be, Foru Aldundiak ez daukala ezelango eskumenik lan gatazkan, ezta egoitzaren titular dan Fundazioaren funtzionamentu desegoki posiblearen ganean be. Gai hori, izatekotan, Gasteizko Jaurlaritzaren esku dagon Euskadiko Fundazioen Protektoratuaren esanetara egongo litzateke.

Jon Sánchez (Euzko Abertzaleak) eta Juan Otermin (Euskal Sozialistak) Gizarte Ekintza saileko arduradunaren jokaeraren alde agertu dira, eta Arturo Aldecoak (Talde Mistoa) zerbitzuaren kalidadea lan baldintza onargarrietan eustea eskatu dau. Eduardo Andrések (Talde Popularra), grebak iraun dauen bitartean arreteagaz erlazionautako eskakizunak bete diran ala ez galdetu dau. Kritikoago agertu dira Jose Angel Elgezabal (Podemos Bizkaia) eta ekimena aurkeztu dauen Josu Unanue bera. Lehenengoa oso kritikoa izan da Miranda Fundazioaren kudeaketeagaz, eta egoiliarrek aurkeztu dituen kexa zehatzak ezagutzea eskatu dau; bigarrenak salatu dauenez, Fundazioak asko murriztu ditu elikaduran, garbiketan edo beharginetan egozan kostuak eta, hori dala eta, guztiz ezinezkoa da zerbitzuaren kalidade berberari eustea.

Plaza kontzertuak dituen egoitzen aldetik emon beharreko informazioa

Gizarte Ekintzako Batzordearen eguneko gai zerrendea, Bizkaiko Foru Aldundiagaz kontzertutako plazak dituen egoitzak kudeetan dituen enpresek emon behar daben informazio zehatzari buruz Arantza Urkaregi EH Bilduko batzordekideak egin dauen erantzun-eske bategaz bukatu da. Saileko arduradunak azaldu dauenez, joan dan garagarrian aurkeztu zan tresna informatiko barria da, prestakuntza tailerrak antolatzea eskatu dauena, eta urrian hasi zan Foru Administrazioak eskatutako datuak kargetako prozesua. Dana dala, epea urtarrila bukatu arte egongo da zabalik. Jasoten diran datuak datozan hilebeteetan egongo dira erabilgarri, tresna barria, eta ehun egoitza baino gehiago barru hartzen dituan prozesu konplexua dalako.